

**1306/2018 EBAZPENA, APIRILAREN 26KOA, ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEARENA, ZEINAREN BIDEZ ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUAN MUGIKORTASUNA 2015EKO EKAINAREN 10EKO ERABAKIAREKIN BAT ETORRIZ ARAUTZEN DEN. ERABAKI HORREN BIDEZ LANPOSTUAK ALDI BATERAKO EDO BEHIN BETIKO BARNE-MUGIKORTASUNEN BIDEZ HORNITZEKO IRIZPIDE OROKORRAK ONESTEN DIRA, ENTE PUBLIKOAREN ZERBITZU-ERAKUNDEETAN (2015EKO EKAINAREN 23KO EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA, 116. ZK.).**

Araba ESiko mugikortasun-deialdian aplikatu beharreko araudia Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuko administrazio kontseiluaren 2015eko ekainaren 10eko Erabakia da eta honako jarduera-irizpide hauek ditu:

1. Behin betiko mugikortasun irekia eta iraunkorra. Deialdiaren epetik kanpo aurkeztutako eskabideak, hurrengo ediziora arte, barematu gabe eta aurkezteko ordenaren arabera (erregistro zenbakia) sartuko dira zerrendan.
2. Aldi baterako mugikortasun irekia eta iraunkorra. Deialdiaren epetik kanpo aurkeztutako eskabideak, hurrengo ediziora arte, barematu gabe eta aurkezteko ordenaren arabera (erregistro zenbakia) sartuko dira zerrendan. Era horretan lanpostuaren titularraren urtebeteko edo gehiagoko absentiak beteko dira, besteak beste: aldi baterako barneko sustapenak; zerbitzu bereziak; zerbitzu-eginkizunak; liberazio sindikalak eta bestelako antzeko egoerak, lanpostuak aldi baterako bete beharra badakarte.
3. Baremoaren lanbide-esperientzia eta euskararen hizkuntza-eskakizuna baldintza edo merezimendutzat hartuko da, zer dagokion, betiere amaitutako lekualdaketen azken lehiaketan ezarritakoaren arabera.
4. Eskatzaileek gehienez 15 destino aukeratu ahal izango dituzte

**RESOLUCIÓN 1306/2018, DE 26 DE ABRIL DEL DIRECTOR GERENTE DE LA ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA, POR LA QUE REGULA LA MOVILIDAD EN LA ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA, CONFORME AL ACUERDO DE 10 DE JUNIO DE 2015 POR EL QUE SE APRUEBAN LOS CRITERIOS PARA LA PROVISIÓN DE PUESTOS MEDIANTE MOVILIDAD INTERNA, TEMPORAL Y DEFINITIVA EN EL CONJUNTO DE LAS ORGANIZACIONES DE SERVICIOS DEL ENTE PÚBLICO (BOLETÍN OFICIAL DEL PAIS VASCO DE 23 DE JUNIO DE 2015 N° 116).**

La normativa aplicable en la convocatoria de movilidad de la OSI Araba es el Acuerdo de 10 de junio de 2015, del Consejo de Administración de Osakidetza- Servicio vasco de salud, con los siguientes criterios de funcionamiento:

1. Movilidad definitiva abierta y permanente. Aquellas solicitudes presentadas fuera del periodo de convocatoria y hasta su siguiente edición pasarán a engrosar la lista en posiciones posteriores sin baremar y por orden de entrada de la solicitud (N° registro).
2. Movilidad temporal abierta y permanente. Aquellas solicitudes presentadas fuera del periodo de convocatoria y hasta su siguiente edición, pasarán a engrosar la lista en posiciones posteriores sin baremar y por orden de entrada de la solicitud (N° registro). Se cubrirán por esta modalidad ausencias prolongadas durante un año o más del titular del puesto, tales como: promociones internas temporales; servicios especiales; comisiones de servicios; liberaciones sindicales; y otras situaciones similares que puedan dar lugar a la necesidad de cubrir los puestos de forma temporal.
3. En el baremo se considerarán la experiencia profesional y el perfil lingüístico del euskera como requisito o mérito, según corresponda, en los términos establecidos para el último concurso de traslados finalizado.
4. Los solicitantes podrán elegir hasta un máximo de 15 destinos.

5. Eskatzaileek izangai izan nahi duten txanda edo txandak hautatu ahal izango dituzte: goizekoa, arratsaldekoa, gauekoa, goiz-arratsaldekoa, goiz-arratsalde-gauekoa, lanaldi etena.

6. 2018 Mugikortasuneko Deialdiaren argitalpenetik aurrera eskaera berririk ezin izango da egin 2017 Higikortasuneko Deialdian eskainitako destinoen gainean. Era berean aldaketarik ezin izango da egin ere ez.

7. Barne-mugikortasun bat esleitu ondoren, adjudikaziodunak urtebete eman beharko du, gutxienez, destino berrian, erakundearen barnean beste mugikortasun-prozesu batean parte hartzeko aukera izan baino lehen. Aldi baterako barne-mugikortasuna denean, gutxienez urtebete, adjudikazioduna aurretik mugitzera behartuta ez badago, titularra berriz sartzeko delako edo bere esleipena sortu zuten arrazoiak desagertu direlako.

8. Adjudikazioduna lortutako lanpostuan lanean hasiko da berehala, aldi baterako barne-mugikortasunean lanpostu bat betetzen ari bada. Berehala hasteko printzipio orokorrari honako salbuespen hauek aplikatuko zaizkio:

- Aldi baterako barne-sustapena: Adjudikaziodunak berehala hastea edo sustapena amaitu arte atzeratzea erabaki ahal izango du
- Amatasunari lotutako lizentziak, baimenak eta eszedentziak eta euskara ikasteko liberazioak zein Osakidetzako hautapen-prozesuetan eta borondatezko mugikortasunean (lekualdaketa-lehiaketa) hastea atzeratzea dakarten lizentziak eta baimenak; adjudikazioduna berehala hasiko da lanpostu berrian egoera horiek amaitu ondoren.

9. Behin betiko mugikortasunaren eskaintzaren aurretik behar diren egokitzapenak egingo dira unitate eta zerbitzuetan, LMTko Fakultatibo Espezialista Familia Medikuen eta LMTko Fakultatibo Espezialista Pediatriako Medikuen kategorietan izan ezik. Prozedura honi jarraituko zaio:

5. Los solicitantes podrán elegir el turno o turnos a los que quiera optar como aspirante: mañanas, tardes, noches, mañanas-tardes, mañanas-tardes-noches, jornada partida.

6. A partir de la publicación de la Convocatoria de Movilidad 2018 no se podrán realizar nuevas solicitudes ni modificaciones sobre los destinos ofertados en la Convocatoria de Movilidad 2017.

7. Tras la asignación de una movilidad interna, el adjudicatario deberá permanecer en el nuevo destino al menos un año antes de poder participar en un nuevo proceso de movilidad dentro de la organización. En el caso de la movilidad interna temporal, al menos un año, a no ser que el adjudicatario sea desplazado con anterioridad, bien por reingreso del titular, o bien a causa de la desaparición de las causas que motivaron su asignación

8. La incorporación al puesto obtenido se realizará con carácter inmediato en el supuesto de que el/la adjudicatario/a se encuentre desempeñando un puesto en movilidad interna temporal. Se aplicara las siguientes excepciones al principio general de la incorporación inmediata:

- Promoción interna temporal: El/la adjudicatario/a podrá decidir su incorporación inmediata o posponer su incorporación hasta la finalización de la promoción.
- Licencias, permisos y excedencias vinculadas a la gestación y a la maternidad, liberación por euskera y licencias y permisos que generan prórroga para la incorporación en procesos de selección y movilidad voluntaria (concurso de traslados) de Osakidetza; el/la adjudicatario/a se incorporará al nuevo puesto de manera inmediata tras la conclusión de dichas situaciones.

9. Con carácter previo a la oferta de movilidad definitiva se realizarán las adecuaciones que procedan en las distintas unidades y servicios, excepto en las categorías de Facultativos Especialistas Médicos de Familia de EAP y Facultativos Especialistas Médicos de Pediatría de EAP. Se seguirá el siguiente procedimiento:



- 9.1. Behin betiko mugikortasun bidez bete daitekeen plaza huts bat dagoenean, eta eskaintza hori egin aurretik, barneko egokitzapena erraztuko da mugikortasunean zehaztutako destinoaren barruan. Egokitzapenen prozesua sinplifikatzen duten mekanismoak ere jarriko dira mugikortasun-prozesu ireki eta iraunkorra ez oztopatzearren.
- 9.2. Araba ESIn plazaren titular diren langile finkoek izango dute egokitzapen horretarako aukera, betiere oraingo plaza Araba ESko mugikortasun deialdian halakotzat hartutako destinoaren barruan esleituta badago. Aukera horretan interesa izan lezaketenei behar bezala jakinaraziko zaie halakorik gertatzen denean haien arduradunen bitartez. Eskabideak aurkezteko epea zazpi egun naturalekoa izango da.
- 9.3. Eskabideak jaso ondoren, eskatzaileen baremazioa egingo da. Baremazio honetan lan esperientzia eta euskara kontuan hartuko dira, betiere deitutako azken lekualdatze-lehiaketan ezarritako irizpideei jarraituta.
- 9.4. Horren guztiaren ondorioz, ebazpena emango da egokitzeko prozesua adjudikatuz eta, argitaratu ondoren, lanpostua egokituko da.

Egokitzapena egindakoan, prozesu honen ondorioz hutsik gelditzen den lanpostua mugikortasun bidez eskainiko zaie zerrendako ordenaren arabera dagokien eskatzaileei, betiere aipatutako destinoa (zerbitzua/unitatea/osasun-zentroa) eskatu badute mugikortasun-deialdian.

9.1. Cuando se produzca una vacante susceptible de ser cubierta mediante movilidad definitiva, y de manera previa a realizar dicha oferta se facilitará la adecuación interna dentro del destino definido en la movilidad. Con el objeto de no entorpecer el proceso de movilidad abierto y permanente se habilitarán los mecanismos que simplifiquen el proceso de las adecuaciones.

9.2. A esta adecuación podrán optar aquellos profesionales fijos titulares de plaza en la OSI Araba y cuya plaza actual esté asignada dentro del destino definido como tal en la convocatoria de movilidad de OSI Araba. Se anunciará convenientemente a los posibles interesados de esta posibilidad cuando se produzca, a través de sus mandos. El plazo de presentación de solicitudes será de siete días naturales a partir del día siguiente al de su publicación.

9.3. Tras la recepción de las solicitudes se realizará la baremación de los solicitantes. Esta baremación consistirá en la valoración de la experiencia profesional y el euskera en los términos establecidos en el último concurso de traslados.

9.4. En consecuencia de todo ello, se procederá a la resolución mediante la adjudicación del proceso de adecuación y tras la publicación y se procederá a realizar la adecuación del puesto.

Una vez realizada la adecuación, el puesto resultante vacante de este proceso se ofertará en movilidad definitiva a los solicitantes que les corresponda por el orden de prelación de la lista, de entre los cuales hayan solicitado el citado destino

Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa jarri ahal izango da Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren aurrean, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 121. eta 122. artikuluei dagokienez Osakidetzako Estatutu Sozialetako 5.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Contra la presente resolución podrá interponer recurso de alzada ante la Dirección General de Osakidetza de conformidad con lo dispuesto en el artículo 5.2 de los Estatutos Sociales de Osakidetza en relación con los artículos 121 y 122 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las administraciones públicas

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 26a

Vitoria-Gasteiz, 26 de abril de 2018

**ARABA ERAKUNDE SANITARIO  
INTEGRATUKO ZUZENDARI GERENTEA**  
Araba Erakunde Sanitario Integratuko  
Pertsonaleko Zuzendaria  
(233/2015 Ebazpena, martxoaren 3koa)

**DIRECTOR GERENTE DE LA ORGANIZACIÓN  
SANITARIA INTEGRADA ARABA**  
Director de Personal de Organización  
Sanitaria Integrada Araba  
(Resolución 233/2015, de 3 de marzo)

Iz./Fdo.: FCO. JAVIER PEDROSA RODERO



**Osakidetza**  
ARABA ESI  
OSI ARABA  
**PERTSONALEKO ZUZENDARITZA**  
DIRECCIÓN DE PERSONAL